



# Osasuna Politika Guztietan

**BATZORDE TEKNIKOA**



Txosten  
sektoriala **2019**

**Ekonomia**

2021eko martxoa



*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Euskadiko Osasun Plana 2013-2020 izenekoak Euskadiko osasun sistemaren antolaketa eta funtzionamendu printzipio pragmatikoak izan ditu oinarri (Antolamendu Sanitarioaren Legea, 8. art.), osasun zerbitzuen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko. Printzipio horien artean, funtsezkoa da prestazio sanitarioen katalogoa diru publikoz finantzatzeko esparrua nahikoa izatea.

Zalantzarik gabe, ezinbestekoa da baliabide ekonomiko nahikoak edukitzea Euskadiko Osasun Sistemaren kalitatezko asistentzia bermatzeko eta horren iraunkortasuna ziurtatzeko.

Esparru horretan, Eusko Jaurlaritzarentzat lehentasun dira osasun politikak, 2019ko ekitaldirako onartutako aurrekontuetatik ondoriozta daitekeenez, hiru eurotik bat osasunerako izango baita.

2019ko ekitaldia aurrekontu-luzapeneko urtea izan zen; beraz, txosten honekin batera doazen datuak Eusko Jaurlaritzaren 2019rako aurrekontu-proiektua egitean kontuan hartu zirenak dira. Proiektu hori ez zen onartu baina, 2019ko ekitaldian, behar ziren aurrekontu-aldaketak egin ziren 2019ko aurrekontu-proiektuaren barruan hasieran ezarritako helburuak lortzeko.


2019rako aurrekontuen aurreproiektuan Osasun Sailaren partida sartu zen, 3.800.123.000 euro, hau da, aurrekontu osoaren %32,24 gutxi gorabehera, eta biztanle bakoitzeko gastua 1.730 eurokoa da pertsonako.

Osasun Sailaren beraren arabera, osasun aldeko desberdintasunen kontra egitea, prebentzioaren kultura sustatzea, zahartzearen erronkari aurre egitea, sistemaren iraunkortasuna eta modernizazioa bermatzea, profesionalen konpromisoari eustea, enplegu egonkorra eta kalitatekoa, hizkuntza normalizazioa, genero berdintasuna eta ikerketa zein berrikuntza dira gastuaren lehentasunak.

Horretarako, Osasun Plana 2013-2020, Zainketa Aringarrien Plana 2016-2020 eta Osasun Arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia 2020 zabaltzen jarraitzeko plan eta ekintza zehatzak daude aurreikusita. Bai eta Adikzioen VII. Plana, "Euskadiko elikadura osasungarrirako ekimenak", Haurren artean obesitatea

prebenitzeko plana, EAEko Osasun Inkesta, txertaketa-egutegia, haurren hartz asistentziarako programa, bai eta biztanleentzako osasun programak ere, jaioberrietan sortzetako gaixotasunen baheketa, bularreko eta koloneko minbiziaren baheketa eta abar, besteak beste, edota Euskadiko Onkologia Plan Integrala eta zerbixeko minbiziaren baheketaren hasiera biztanleen artean.

Hona hemen gastuaren banaketa:



---

Partida handiena Osakidetzari dagokio; izan ere, %3,3ko hazkundera izan du eta **2.944.302,60 milioi eurora** iritsi da, aurreko urteko 2.812 milioien aldean, 132 milioi euro gehiago.

Osakidetzara bideratutako 2.944.302,60 milioi euroetatik, 1.962,7 milioi langileria-gastuetarako erabiliko dira, Osakidetzan enplegua egonkortzeko; hau da, Osakidetzaren aurrekontu osoaren %66,67, eta aurreko urtearekin alderatuta %4,1 igoko da.

Osakidetzak %16,9 igoko du inbertsioetara bideratutako zenbatekoa.

Lurraldean arabera: 26 milioi obra eta ekipamendurako Araba Unibertsitate Ospitalean, eta milioi bat Murgiako Osasun Zentroan obra egiteko; Bizkaian, 4 milioi Irala eta Zallako osasun zentroetako obretarako; obretarako zuzkidurak Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean, Santa Marina Ospitalean eta Gorkizko Ospitalean; Gipuzkoan, 9,3 milioi, Alde Zaharreko, Aieteko, Aretxabaletako eta Ordiziako osasun zentroetako obretarako, eta Mendaroko Ospitaleko obretarako zuzkiduretarako eta Eibarko Erietzeko ekipamendurako.

Osasun publikora bideratutako baliabideen ehunekoak %91 baino handiagoa da, eta osasun-itunak izenpetzera bideratutakoa %6 da. Programa-kontratuan osasun publikorako zuzkidurak, inbertsioak, farmaziak eta txertoek %18,3 igoera izan dute 2013 eta 2019 artean.

Farmaziarako aurrekontu-partida 522,77 milioi eurokoa da, hau da, aurreko ekitaldikoa baino %2,4 handiagoa. Bestalde, botiken ko-ordainketari aurre egiteko laguntzen igoera %1,5ekoa da. Ikerketa-proiektuen deialdiari dagokion partida %5 handitu da, eta txertoek dagokiena, berriz, %1,5; hala, 11.157,3 milioira iritsi da, guztira.